



AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL de 25 de NOVIEMBRE

**EMAKUMEEKIKO INDARKERIAREN AURKAKO
NAZIOARTEKO EGUNA**

**“DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA
LAS MUJERES”**

Azaroaren 25a dela eta, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna, berriz azpimarratzen dugu indarkeria-mota honen izaera estrukturala eta gure konpromisoa agertzen dugu emakumeen aurkako indarkeriatik libre egongo den gizarte baten alde. Era berean, nazioarteko zuzenbide-esparruarekin bat, berresten dugu badagoela loturarik genero-arrazoiek eragindako bazterkeriaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren artean. Emakumeen aurkako indarkeriak eragindako biktimei eta hartatik bizirik irtendakoei laguntza-zerbitzua bermatzea ez ezik, beharrezkoa ere bada esku-hartzearen plano guztietan jarduketak planteatzea: **Prebentzioa, Detekzioa, Arreta, Babesa, Koordinazioa, Justizia, eta Erreparazioa ere bai.**

Herritarren bizitza kolektiboa kudeatzeko ardura duen erakundeek oro lehentasun gisa behar du izan indarkeria matxistarik gabeko herrialdeak eta lurraldeak eraikitzea zein bere agenda politikoan eta jardun instituzionalean, bai eta gizarte igualitario baten defentsa ere, non emakumeak aske sentituko baitira.

Beraz, beharrezkoa da indarkeria-adierazpenen arrazoiengan sakontzeko ahaleginak egitea, emakumeen ekiteko ahalmenak onartuz, beren erruduntasuna gaitzetsiz eta indarkeria matxistarik gabeko bizitza askea izan dezaten lagunduz. Eta horretarako ezinbestekoa da gure gizarte-ereduaren egitura-aldaketa; osterantzean, uko egingo genioke aldaketa justu, zuzen eta bidezkoaren alde hartua dugun konpromisoari.

Hortaz, emakumeekiko indarkeriaren aurkako nazioarteko egun honetan, esan gura dugu:

- Udal honek bere egiten du **agenda politikoan** indarkeriak eragindako emakume biktimekiko **erreparazio-eskubidearen** aitortza eta horri buruzko hausnarketa sartzeko konpromisoa, guztiz osatu daitezen eta indarkeriarik gabeko bizitza-eskubidea gauzatu ahal dezaten.

Con motivo del 25 de noviembre, Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres, reiteramos el carácter estructural de este tipo de violencia y manifestamos nuestro compromiso con la construcción de una sociedad libre de violencia contra las mujeres. Asimismo, reafirmamos el vínculo existente entre la discriminación por motivos de género y la violencia contra las mujeres. Además de asegurar los servicios de asistencia a las víctimas y supervivientes de violencia contra las mujeres, es necesario plantear actuaciones en todos los planos de la intervención: **Prevención, Detección, Atención, Protección, Coordinación, Justicia, y también Reparación.**

Toda institución con responsabilidad en gestionar la vida colectiva de la ciudadanía debe tener como prioridad en su agenda política y en su actuación institucional la construcción de países y territorios libres de violencias machistas, y la defensa de una sociedad igualitaria, en la que las mujeres se sientan libres.

Por lo tanto, es necesario realizar un esfuerzo conjunto que vaya realmente a las causas de las múltiples expresiones de violencia, reconociendo a las mujeres capacidades de acción, rechazando su culpabilización y contribuyendo a que puedan gozar de una vida libre de violencias machistas. Y esto requiere, necesariamente, de un cambio estructural de nuestro modelo de sociedad, lo contrario supone faltar a nuestro compromiso por un cambio justo y equitativo.

Por tanto, en este marco del Día Internacional contra la Violencia hacia las mujeres manifestamos:

- Este ayuntamiento asume el compromiso de trasladar a la **agenda política** la reflexión y el reconocimiento **del derecho a la reparación** de las mujeres víctimas de violencia para su completa recuperación y que puedan ejercer su derecho a una vida libre de violencia.



- Udal honek bere egiten du 2018ko aurrekontuak definitzeko unean, berdintasun-unitateei beharrezko baliabide tekniko eta ekonomikoak hornitzeko konpromisoa, eta unitate horiek egonkortu eta indartzekoa.
- Udal honek dei zuzena egiten die hezkuntzako agenteei curriculum-lerroetan genero-berdintasuna sar dezaten.
- Udal honek Foru Aldundiari eta Emakunderi eskatzen die emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun-zuzendaritzak sendotzeko, epaitegietako genero-unitateak indartzeko eta indarreko legeria berraztertzeko konpromisoa hartzeko.
- Udal honek bere egiten du plan eta neurri estrukturalak hedatzen eta hobetzen jarraitzeko edo, hala badagokio, abian jartzeko konpromisoa, indarkeria matxistari aurre egitea xede, **emakumeen kolektiboekin eta kolektibo feministekin** batera, bai halaber **gizarte zibilarekin eta herritarrekin** oro har.
- Udalak bere egiten du **gizartean aldaketa estrukturala bultzatzeko** konpromisoa, hartara erakunde publikoak, komunikabideak, lan, kultura, gizarte eta ekonomia-esparruko eragileak zein gizarte osoarenak inplika daitezten.
- Udal honek bat egiten du mugimendu feministak azaroaren 25erako deitutako mobilizazioekin, eta gizarte osoari ere dei egiten diogu mobilizazio horietan parte har dezan.
- Este Ayuntamiento, cara a definir los presupuestos de 2018 dotará las unidades de igualdad de los recursos técnicos y económicos necesarios, y adopta el compromiso de estabilizar y reforzar dichas unidades.
- Este Ayuntamiento, les hace un emplazamiento directo a los agentes educativos, para que incluyan en las líneas curriculares la igualdad de género
- Este Ayuntamiento, emplaza a la Diputación Foral y Emakunde a ampliar las partidas presupuestarias en materia de igualdad entre mujeres y hombres, a reforzar las direcciones de igualdad, a reforzar las unidades de género de los juzgados y a adoptar el compromiso para revisar la legislación vigente.
- Nuestro compromiso como ayuntamiento en **continuar el despliegue y mejora** o, en su caso, **la puesta en marcha en los municipios y cuadrillas de planes y medidas estructurales** para hacer frente a la violencia machista, en colaboración con **colectivos de mujeres y feministas** así como con la **sociedad civil y ciudadanía** en su conjunto.
- Nuestro compromiso con **el impulso de un cambio estructural en la sociedad**, que implique a instituciones públicas, medios de comunicación, agentes del ámbito laboral, cultural, social y económico, así como de toda la sociedad en su conjunto.
- Nos adherimos a las movilizaciones convocadas para el día 25 de noviembre, y hacemos un llamamiento a toda la sociedad para que participe en ellas.

Murgian, 2017ko azaroaren 9an.

Murgia, 9 de noviembre de 2017